

Bea Salaberryk *Han eta hemen blogean* esanak: “Uda osoan zehar kontsultatu ditudan hainbat agenda kulturalak, ideia batzuk konfirmatu dizkidate, astebururo nun nahi badelarik zer dasta: sobera. Kasik lehia itxurak hartzen ditu aferak, ikusten denean iparralde bezalako eremu batean, egun berean dozena erdi ekimen desberdin antolatzen direla, antzekoak, publiko, helburu eta eduki berekin.

Gainera, hau inpresio bat baik ez bada ere, antolatzen denak, usu, badu eta betetzen du helburu bat eta bakarra. Izan ere, antolakunde anitzetan asuntua dugu ekitaldi batzuk antolatzen ditugula dirua ateratzearen helburu nagusiarekin eta bestalde, beste batzuk beste helburu batzuekin, tarteka ekonomikoki galarazleak direnak. Bide horretatik egiten ditugunak biderkatzen ditugu, gastatzen den energia bezala. Diru iturri direnak burutzen segitu behar da maiz, konpentsatzeko

beste ekimen batzuen galtze ekonomikoak. Hori guziaz molde biziki konpartimentatuan. Eta loratzen dira agendak ikusgarritz, kontzertu eta pestaz, musika eta euskararen

niazko adierazpenak eskatzen, baita frantziar estatuko ere. Nik neuk, pilota partidetan, hainbat aldiz jaso izan dut albistegietako editoreen mandatua, produkzio laguntzaileen bitartez: ‘zuzeneko konexioa itzuli ondoren Aimarri –edo Xalari– gaztelaniaz pare bat galdera egin behar zaizkio’. Behin baino gehiagotan kexatu izan naiz, baina beti men egin diot aginduari.

Berriki, talde batek jokaera horri buruzko argibideak eskatu ditu EITBren administrazio kontseiluaren bilera batean. Nik dakidala, ez da ezer aldatu. Talde horrek erabaki bat zabaldu eta sustatu nahi du: euskal hitzunek uko egin diezaiotela ETBn erdaraz adierazpenak egiteari. Nik neuk berebiziko poza hartuko nuke pilotariren batek purrustadaren bat egingo balit, neure kontraesanak bistaratzu: ‘hi, Euzkitze, ez niri ETBn erdarazko adierazpenik eskatu! Izan hadi kontsekuente behingoz!’”.



ASEGARCE

egunez, erakusketa eta mintza egunez, sentsibilizazio eta dibulgazio saioz...”.

Xabier Euzkitzek *sustatu.com* webgunean esanak: “Urte asko daramatzagu ETBn euskal hitzunei gaztela-



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kapitalaren diktadura

Abuztu honetan, beste behin, ikusi dugu Merkatuek edo Kapitalak –espekulatuzaileak, inbertsiogile handiak, pentsio funts handiak, banka...– ez dutela oporrik hartzen. Finantzetan eta ekonomikoki ahulen dauden herrialdeak erasotzeko gai dira, eta baita AEBak bezalako potentziak ere. Kapitalaren diktadurak ez du mugarik, eta ordenagailuan klik egitearekin soilik kapaz da edozein herrialdeko ekonomia hankaz gora jartzeko. Abuztuan ikusi dugu hori, kalifikazio agentziek AEBen kontra egindako ekintzarekin. Eta oraintxe ikusi dugu Madril, PSOEk eta PPK Konstituzioa erreformatzeko egindako paktuarekin, defizitari sabaia jartzeko. Hego Euskal Herriari ere eragingo dio, EAeko kontzertu ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmena praktikan baliogabetuz eta mozketak sozial gehiagori argi berdea emanez. Erreforma antisozial eta antinazionala euskaldun gutzientzat.

Kapitalaren diktadura horri ezer gutxi inporta zaizkio giza eskubideak, eskubide politikoak, osasuna edo

gizartearen ongizatea. Interesatzen zaion bakarra da egunero etekin gehiago pilotzea, bereziki langile eta herri klaseen bizkar. Interesatzen zaio gobernuak bilioika diru publiko txertatzea bankan, etekinak jasotzen segi dezan. Gobernuak belaunikatu egiten dira haren aurrean, eta pozik egon dadin, neurri antisozialak hartzen dituzte: defizitari muga jarri, pentsioak eta soldatak izoztu, osasun kopagoa, lan erreformak, enplegu prekarioa... Kapitalari, Afrikan gertatzen denak –Somalian eta beste “gose herrietan” dauden milioika hildakoak alegia– bost axola dio. Ondorioz, gobernuak ere begiak ixten dituzte gosete horren aurrean, beren obsesioa Merkatuak, Kapitala, asebetetzea delako. Baina Kapital horren egiturazko funtzionamendua esplotatzailea eta hiltzailea da, halaxe ari da erakusten.

Juan Mari Arregi